



16-19.EUS

EUSKARAREN I. PLAN ESTRATEGIKOAREN EBALUAZIOA
TXOSTEN EXEKUTIBOA
2020ko otsailaren 10a



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



euskarabidea

Aurkibidea

Hitzaurrea

1. Aurrekariak

1.1 Prozesua

1.2 Diagnostikotik eredu estrategikora

1.2.1 AMIA analisia

1.2.2 Euskararen gaineko ikuskera berria

1.2.3 Eredu estrategikoa

2. Euskararen I. Plan estategikoa (2016 - 2019)

2.1 Gauzatzea ardatzez ardatz

2.1.1 Gizarte erabilera

2.1.2 Hitzun berriak

2.1.3 Zerbitzu publikoak

2.1.4 Prestigioa eta erakargarritasuna

2.1.5 Ekonomia eragilea

2.1.6 Hizkuntza esparrua

2.2 Laburpen koadroak

2.2.1 Exekuzio maila kuantitatiboa

2.2.2 Arloen lanketa

3. Programa akordioaren betetzea

4. Ebaluazioa eta eragina

4.1 Barne kudeaketa

4.2 Aginte koadroa

4.2.1 Emaitzak

4.2.2 Adierazleen azterketa eta proposamena

5. Ondorio nagusiak

6. Hurrengo plangintza estrategikorako gomendioak

Hitzaurrea

Euskara Nafarroako hizkuntza da eta lurraldearen zati batean ofiziala. Horregatik, administrazio publikoei dagokie haren erabilera eta sustapena bermatzea. Nafar guztion ondarea den euskara babestea eta nafar guztien hizkuntza eskubideak begiratzea xede izanda, Nafarroako Gobernuaren ardura da hizkuntza politika garatzea. Hizkuntza politikak —zeinahi politika publikok bezala— planifikazioa behar du; hau da, helburuak erdiestera bideraturiko neurriak garatzeko tresna bat izan behar du, lehentasunak ezarri eta baliabideak kudeatzen dituen. Hala bada, Nafarroako Gobernuak Euskararen I. Plan Estrategikoa onartu zuen, 2016tik 2019 bitarte gauzatu duena eta Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuak kudeatu duena.

Lehen aldiz, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikak bere eredu estrategikoa izan du, berekia eta Nafarroan euskaldunek eta euskara duten beharrei erantzuteko berariaz sortua. Zazpi ardatz estrategiko bereizi dira, zeinek bere helburu nagusia, helburu espezifikoa eta ekintzak dituen: gizarte erabilera, hiztun berriak, zerbitzu publikoak, euskararen prestigioa eta erakar-garritasuna, euskara ekonomiaren eragilea, hizkuntzaren esparrua eta Plan Estrategikoaren kudeaketa Euskarabidean.

Euskararen I. Plan Estrategikoa Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikaren bide-orria izan den urteetan, euskararen ezagutza eta erabilera nafar gizartearen zabaltzeko eta herritarrei zerbitzu publikoak euskaraz bermatzeko urrats garrantzitsuak egin dira. Txosten honetan planaren emaitza laburbildu da: ardatzez ardatz arlo jorratuak eta buruturiko ekintzak jaso dira, horien gauzatze maila eta gizarteari eragin dioten inpaktua.

Bestalde, planaren gauzatzean argi-itzalak jaso dira. Jorratutako bidea ikasbide oparoa izan da eta, ziur naiz, dokumentu honek biltzen duen ebaluazio kritikoa lehen plan estrategikoari segida emanen dion planerako eskarmentu baliotsua izanen dela.

Ana Ollo Hualde

Nafarroako Gobernuaren Herritarrekiko Harremanetako kontseilaria

01 Aurrekariak

2015 - 2019 legealdirako Nafarroako Gobernuaren Programa Akordioak bere gain hartu zuen, beste konpromiso batzuen artean, «euskararen egoeraren diagnostiko oso eta eguneratua egitea eta Euskararen Kontseiluak plan estrategiko errealista, bideragarri eta eraginkor bat diseinatzea, Gobernuaren hizkuntza-politikaren oinarria finkatzeko».

Hala, Nafarroako Gobernuak, Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuaren bidez, Euskararen I. Plan Estrategikoa (2016 - 2019) (I. PE hemendik aitzina) prestatu zuen, euskararen gizarte erabilera berreskuratzera eta zabaltzera bideraturiko ekintzak antolatzeke asmoz eta herritar ororen hizkuntza eskubideak bermatzeko xedez, betiere hizkuntza politikari zehar-lerroko izaera emanez.

2017ko urtarrilaren 19an Euskararen Nafar Kontseiluak I. PE onetsi zuen eta, azkenik, Nafarroako Gobernuak urte bereko urtarrilaren 25ean onartu zuen.

2019 urtea akitzearekin, I. PEren indarraldia amaitu da eta bidezkoa da horren ebaluazioa egitea. Horretarako, planaren betetze maila eta ebaluazioa xeheki azaltzeko, Euskarabideak planaren garapenaren gaineko txosten exekutibo hau apailatu du, planaren burutzearen eta ixtearen ondorioak labur azaltzeko. Txosten honek helburu hauek ditu:

- I. PEren ardatz bakoitzaren betetze maila azaltzea.
- Erdietsitakoak adieraztea.
- I. PEren ibilbidearen balantzea egitea.
- Hurrengo plan estrategikorako gomendioak jasotzea.

1.1 Prozesua

HIZKUNTZA POLITIKA 2015 - 2019 LEGEALDIKO PROGRAMA AKORDIOAN

Programa Akordioak hizkuntza politika honelakoa izatea jaso zuen:

- Zeharkakoa, politika publiko eta gizarte arlo orori eraginen diona.
- Progresiboa eta Nafarroako egoera soziolinguistiko ezberdinei egokitua.
- Eraginkorra, ongi planifikatua eta ebaluatua.
- Parte-hartzea bultzatzen duena, bai herritarrena bai euskara sustatzeko lanean ari diren gizarte-eragileena.
- Hizkuntza eskubideak bermatzeko bidean aurrera egiteko arauzko babes egokia duena.
- Euskarari gizartean prestigioa emanen diona.
- Herritarren askatasuna eta borondatezkotasuna begiratuko dituen.

EUSKARABIDEA ETA PLAN ESTRATEGIKOA

- Nafarroako Gobernuak bere hizkuntza politika gauzatzeko Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoari eskumen eta eginkizun berriak esleitu zizkion (130/2015 Foru Dekretua, abuztuaren 28koa).

- Euskarabidearen eginkizunen artean honako hau zegoen: euskara sustatzeko eta erabiltzeko plan estrategikoaren proposamena egitea eta beroni jarraipena egiteko, ebaluatzeko eta eguneratzeko nahitaezkoak diren azterlan eta ikerketak egitea.
- 2016an Euskarabideak Euskararen I. PE lantzeari ekin zion.
- I. PE prozesu luze baten emaitza izan zen, 2016ko udaberrian euskararen egoeraren diagnosiarekin hasi eta urte bereko abenduan parte-hartze aldiko ekarpenak biltzearekin eta dokumentua ixtearekin amaitu zena.

DIAGNOSIA

- 2016ko maiatzean eta ekainean euskararen egoera aztertu zen eta horretarako, hauek izan ziren informazio bide nagusiak:
 - Nafarroako ikerketa eta azterketa soziolinguistikoak aztertzea.
 - Euskararen egoera ongi ezagutzen duten bederatzi adituren ikusmoldeak jasotzea.

MAHAI TEKNIKOAK

- Nafarroako administrazio publikoetako arduradunei nahiz teknikariei eta gizarteko eragileei diagnostia osatzeko aukera luzatu zitzaizkien.
- Parte-hartzeko prozesuan 109 eragilek hartu zuen parte.
- Eragileekin 2 lan saio egin ziren.
- Saioetan 8 arlo landu ziren:
 - Politika publikoak
 - Euskararen irakaskuntza eta euskarazko sozializazioa
 - Helduen alfabetatzea
 - Gizarte erakundeak
 - Euskarazko hedabideak
 - Kultura, kirola, aisialdia nahiz IKTak
 - Arlo sozioekonomikoa
 - Arnasguneak.
- 2016ko udan behin betiko diagnostia ez ezik I. PEren hasierako idatzaldia ere osatu zen.

PARTE- HARTZE PROZESUA

- 2016ko urriaren 21etik azaroaren 21era I. PEren hasierako idatzaldia jendaurrean jarri zen gizarteak ezagutu zezan eta ekarpenak egin ahal izan zitzaizkien.
- Gizartearen parte-hartzeko prozesuko eskualde-saioetan eta arlokako saioetan 154 ekarpen bildu ziren, Gobernu Irekiaren plataformaren medioz 66, posta elektronikoz 38 eta erregistro bidez 1. Guztira, 259 ekarpen jaso ziren.
- 2016ko abenduaren 19an parte-hartzeko prozesuaren itzulera saioa antolatu zen.
- Prozesu horrekin batera, 2016ko irail eta azaro bitartean, Euskarabidearen kudeaketa sistemaren azterketa egin zen hizkuntza politika berriak eskatzen zizkion eskumenei eta I. PEri zekarzkiekion erronkei erantzuteko.

EUSKARAREN I. PLAN ESTRATEGIKOA ONARTU

- Euskarabideak I. PEren behin-behineko idatzaldia Euskararen Nafar Kontseiluari aurkeztu zion eta horrek 2017ko urtarrilaren 19an dokumentuari oniritzia eman zion.
- Buruenik, Nafarroako Gobernuak 2017ko urtarrilaren 25ean eginiko bilkuran *Euskararen I.*

*Plan Estrategikoa (2016-2019)** dokumentua onetsi zuen eta hori izan da azken lau urtekoan Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikaren bide orria, Euskarabideak kudeatu duena eta txosten exekutibo honetan ebaluatuko dena.

1.2 Diagnostikotik eredu estrategikora

1.2.1 AMIA analisisia

AHULEZIAK		
POLITIKA	BALIOAK ETA PRESTIGIOA	JARRERAK
Ikuskera komuna garatzen uzten ez duen diskurtso ideologikoan harrapatuta.	Oraindik balio positiboak eta etorkizuneko balioei loturik ez dagoen hizkuntza.	Euskarari eman behar zaion garapenaren gainean jarrera eta itxaropen ezberdinak.
ESTRATEGIA	DISKURTSOA	BALIABIDEAK
Euskara Nafarroaren eragile eta ondare komunatzat jotzen duen estrategia argirik eta ikuskera partekaturik eza.	Euskara garatu, erabili eta ikastearen gaineko diskurtso bakarrik ez dago.	Baliabide ekonomikoen gabezia.
IKASTEA	IRAKASKUNTZA ETA GIZARTE BIZITZA	LANKIDETZA
Euskara ikasteko eta euskaraz eskolatzeko eskaera gelditu da.	Euskara irakastearen eta gizartearen erabiltzearen arteko segida ez dago ongi lotua.	Gizartearen ekimen anitz daude baina haien artean koordinazio eraginkorrik ez dago.
PRESENTZIA ETA ERABILERA		
Masa kritikoa oraindik txikia da.	Euskaldunak gutxi diren eskualdeetan hizkuntza sustatzeko zailtasun handiak daude.	Gizarte bizitzan euskarak duen toki txikia: hedabideetan, lan munduan, aisiarako aukeretan, familia artean
MEHATXUAK		
KRISI EKONOMIKOA	LEGERIA	JARRERA KONFORMISTA
Krisi egoerak zailtasun handiagoa dakar.	Euskararen Foru Legeak ezartzen dituen mugak.	Gizartearen zati bat erlaxatu da Gobernu berria euskara garatzearen aldekoa dela ikusirik.
KONFRONTAZIOA	HEDABIDEAK	HEZKUNTZA
Gizartearen zenbait taldetan eta zenbait talde politikotan euskararen kontrako jarrera suttsua. Euskara helburu politikoei lotzen segitzen duten taldeak.	Krisiaren eragina hedabideetan.	Nafarroako eskualde anitzetan euskara ikasteko edo euskaraz eskolatzeko dauden zailtasunak.
EKOIZPEN-JARDUERA	BESTE HIZKUNTZEKIKO HARREMANA	GOBERNU ALDAKETA
Produktuak eta zerbitzuak euskaraz kontsumitzen dituen masa kritikoa txikia da.	Ingelesaren aldekoa den diskurtsoa, ingelesa soilik defendatzen duena eta euskararen kontrako dena. Gaztelaniaren nagusitasuna.	Hizkuntza eskubideen errespetua Gobernuaren kolore politikoaren arabera izatea.



* <https://bit.ly/3cwT7RI>

INDARGUNEA

GIZARTEA	EGUNGO GOBERNUA	ETORKIZUNA
Euskara biziagotzearen aldeko gizarte mugimendua. Gizartea gero eta harroago dago bere hizkuntzaz.	Egungo Gobernuak Nafarroako hizkuntzen berdintasunaren alde duen jarrera.	Euskarari aukera arrunt onak sortu zaizkio.

NORMALTASUNA	BALIABIDE EKONOMIKOAK	EUSKARABIDEA
Euskara presentzia eta normaltasuna irabazten ari da.	Galdutako baliabideak berreskuratzen ari dira eta euskararen aldeko ekimenei bide ematen ari zaie.	<ul style="list-style-type: none"> Planteamendu berria: erakunde aholku-emaile izatetik erakunde planifikatzailea izatera pasatu da. Baliabide gehiago. Euskararen I. PE aitzina eramateko erabakia.

EUSKARAREN PRESENTZIA	HIZKUNTZA PAREGABEA
<ul style="list-style-type: none"> Hirietan eta herri ertainetan euskararen presentzia handitu da. Euskaldunak oso gutxi diren eskualdeetan euskararen presentzia handitu eta errotu da. 	<ul style="list-style-type: none"> Kulturan, hezkuntzan, osasun arloan eta beste arloetan, euskararen presentzia gero eta handiagoa. Erakundeetako ordezkariak eta arlo ezberdinetako pertsona garrantzitsuak euskaldunak dira.

AUKERAK

GIZARTE ERAKUNDEAK	NAFARROAKO GIZARTEA	ERABILERA
Euskararen aldeko gizarte erakundeek Gobernuari babesa ematen diote.	Nafarroako jendeak euskara hobeki hartzen du. Euskararen Nafar Kontseiluan gizartearen parte-hartze handiagoa da eta eskumen gehiago hartuko ditu.	Hiriguneetan euskara dakitenak eta erabil dezaketenak gehiago dira.

ARAUDIA	HEZKUNTZA	ADMINISTRAZIO PUBLIKOA
Nafarroan euskara ikasi, erabili eta sustatzearen aldeko araudia hobetzeko aukera.	Euskarazko irakaskuntza, D eredua, Nafarroa osora zabaldu izana.	<ul style="list-style-type: none"> Hainbat toki entitatek euskara ikastearen eta erabiltzearen alde egindako lana eta ahalegina. Gobernuaren babesa euskararen inbertitzeko.

PRESTIGIOA	EKONOMIA ERAGILEA	BERRIKUNTZA ETA ETORKIZUNA
<ul style="list-style-type: none"> Euskarak Nafarroaren elementu bateratzaitako eta integratzaitako duen prestigioa hobetzeko aukera. Euskara gizartearen balio positiboak estuago lotzea. 	Euskara Nafarroari aberastasuna sortzen eta ekonomikoki garatzen lagunduko dion elementua izan daitekeela balioesteko aukera.	Euskara etorkizun, berrikuntza eta teknologia balioei lotzea.

1.2.2 Euskararen gaineko ikuskera berria


Diagnostikoaren prozesuan zehar jasotako ekarpenetan argi gelditu zen euskararen gaineko irudi berri bat sortzeko premia zegoela; hain zuzen ere, euskara Nafarroako balio positiboekin eta etorkizunekoekin lotzeko. Irudi horrek berarekin behar zuen hizkera berri bat, diskurtso berri bat eta hizkuntzaren gaineko ikuskera berri bat.

Euskararen I. Plan Estrategikoak euskararen gaineko paradigma eta ikuskera aldaketa hau proposatu zuen:

Gaiztatu beharreko ikuskera	Ikuskera berria
Bereizten duen hizkuntza.	Batzen duen hizkuntza.
Zatitzen duen hizkuntza.	Biderkatzen duen hizkuntza.
Gastuari loturiko hizkuntza.	Inbertsioari loturiko hizkuntza, baliabidea.
Batez ere tradizioarekin eta iraganarekin loturiko hizkuntza.	Hizkuntza bat, era berean eta ezberrik gabe, etorkizunari, berrikuntzari eta gizarte globalari loturikoa.
Inposizioari loturiko hizkuntza.	Nafarroako herritarren garapen progresiboari eta hautatze askatasunarekiko errespetuari loturiko hizkuntza.
Tokiko hizkuntza.	Munduari irekita dagoen hizkuntza.
Ikasten zaila den hizkuntza.	Aise menderatzen den hizkuntza.
Erabilera mugatuko hizkuntza.	Erabilera mugagabeko hizkuntza.
Liskarretako balioei loturiko hizkuntza.	Gizarteratze eta garatze balioei loturiko hizkuntza.
Lanerako duen erabilgarritasunaren gaineko eztabaida.	Hizkuntzak Nafarroari ematen dion balioaren eta aberastasunaren aitortpena.

1.2.3 Plan estrategikoaren egitura: eredu estrategikoa

- Ardatz bakoitzean helburu nagusia eta helburu espezifikoak zehaztu ziren. Helburu espezifikoek ekintzak esleituko zitzaizkien, arloka sailkaturik.
- Hala bada, xeheki azaldurik, lehen 6 ardatzak aintzat harturik, Euskararen I. Plan Estrategikoak 6 helburu nagusi zituen, 29 helburu espezifikotan aleturik. Horiek erdiesteko 168 ekintza zehaztu ziren, 68 arlotan sailkaturik.
- 7. ardatza, Euskarabidearen barne kudeaketaren gainekoa, modu bereizian landu da.



02 Euskararen I. Plan Estrategikoa (2016 – 2019)

2.1 Gauzatzea ardatzez ardatz

2.1.1 Gizarte erabilera

Helburu nagusia: euskararen erabilera igotzea, hitzunek gizarte arlo guztietan erabil dezatela erraztuz eta euskararen erabilera errazagoa eginez.

1. ARDATZA. GIZARTE ERABILERA

2016 - 2019 epealdiko jarduerarik aipagarrienak

- ✓ **Programak, jardunaldiak eta ikastaroak**

 - Hezitzaileendako eta monitoreendako *Hau jolasa baino gehiago da* gidaliburua eta 9 ikastaro, haur-gaztetxoaren euskararen erabilera sustatzeko estrategiak lantzeko.
 - Euskarazko kultura digitala eta euskara IKTetan sustatzeko "Sarean euskaraz" jardunaldia Baluartean, 3 ediziotan (2.000 parte-hartzaile); 5 ikastaro (Youtuber, blogari, robotika, pribatutasuna sarean eta musika sortu, nahastu eta zabaltzeko aplikazioak) Nafarroako 17 herritan (415 parte-hartzaile).
 - Wikipedian euskarazko edukiak handitzeko Euskal Wikilarien Elkartearekin lankidetzaz garatutako programa eta Wikimaratoia.
 - Euskara teknikarien prestakuntza tekniko hobetzeko UDALTOP jardunaldien antolaketan parte-hartzea Euskal Herriko beste erakunde publiko batzuekin batera.
 - EuskarAbentura, Euskal Herri osoko gazteendako, euskara eta kultura ardatz izanda.
- ✓ **Lankidetzak**

 - Kirol federazioen jardueran euskara sustatzeko lankidetzak, euskara teknikari baten kontratazioarako.
 - Nafarroako Udaletako Euskara Teknikarien Sarearekin (NUETSekin).
 - Iruñeko Udalarekin, Sanferminetan konpartsarekin abesteko kantak.
- ✓ **Euskararen gizarte erabilera aktibatzearen ekimenak**

 - Hitzarmena TOPAGUNEA euskara elkarten federazioarekin eta koordinazioa Euskal Herriko erakunde publikoekin batera Euskaraldia ekimena garatzeko (20.861 nafarrek eman zuten izena).
 - Mintegia Nafarroako toki entitateetako euskara teknikariek Euskaraldiaren eragina neurtzeko ikerketaren emaitzak lantzeko.
 - Euskaraldiaren II. edizioa prestatu eta Nafarroari egokitu.
- ✓ **Ikuskizunak, kultura ekoizpena eta kontsumoa**

 - Kultura jarduerak: "Artxiplago" musikala (1.500 ikusle); The Mode Quarter taldearen ikuskizuna (2.250 ikusle); Jaso ikastolaren musikala (2.500 ikusle), 2017ko Euskal Herriko Bertso Txapelketa, besteak beste.
 - Euskararen Nazioarteko Egunaren inguruan antzerkialdia Nafarroako 10 herri txikitari, 2017tik urtero.
 - Euskarazko kultura ekoizpena: Euskal Liburu eta Diska Azokari laguntzea eta Nafarroako Gobernuaren parte-hartzea bideratzea; euskarazko produktuak saltoki handietan Eguberrietako kanpainetan, besteak beste.
 - Argitalpenak: *Bortzirak solasean*, *Nafar aire zaharretan*, *Erronkaribarko etxeak / Las casas del Valle de Roncal*, *Artzibarko etxeak / Las casas del Valle de Arce*, besteak beste.
 - Euskarazko haur folklorea zabaltzeko "Ane eta ohe hegalaria" ikuskizuna Nafarroan barna (1.250 ikusle).
- ✓ **Euskara sustatzeko dirulaguntzen deialdiak**

 - Guztira, dirulaguntzetan 2016an 700.000 € banatzen ziren eta 2019an 1.808.000 €.
 - Toki entitateetarako deialdian: 2016an 300.000 € eta 2019an 750.000 €.
 - Hedabideetarako deialdian: 2016an 290.000 € eta 2019an 680.000 €.
 - Elkarreentzako deialdian: 2016an 110.000 € eta 2019an 250.000 €.
 - BERRIA, 2017tik enpresetarako deialdian: 2017an 60.000 € eta 2019an 80.000 €.
 - BERRIA, 2018tik IKTetarako deialdian: 2018an 40.000 € eta 2019an 40.000 €.
 - BERRIA, 2018tik ikerketen argitalpen proiektuetarako: 2018an 10.000 € eta 2019an 8.000 €.
- ✓ **Mediateka**

 - Mediatekako funtsak handitu eta zabaldu.
 - Mediatekaren webgunearen berritze lanak eta plataforma anitzeko aplikazioan ikusi ahal izateko egokitu.
 - Mediatekako funtsak sare sozialetan gizarteratzeko asteroko sare-dinamizazioa.
 - Mediatekako funtsak DBHn lantzeko baliabide didaktikoak prestatu.
 - José María Jimeno Jurioren idazlanak indexatu.

EXEKUZIO MAILA	DAGOKION KOLOREA
<% 50	Gorria
% 50 eta % 69 bitartekoa	Laranja
% 70 eta % 89 bitartekoa	Berde argia
>% 90	Berde iluna

1. ARDATZA. GIZARTE ERABILERA

HELBURU ESPEZIFIKOAK	ARLOAK	LANDUTAKO ARLOAK	LANDUTAKO ARLOAK	EKINTZAK	LANDUTAKO EKINTZAK	LANDUTAKO EKINTZAK
1.1. Euskarazko jardueren eskaintza handitzea, hizkuntzaren gizarte erabilera aktibatze eta indartzeko.	3	3	% 100	7	7	% 100
1.2. Eskolaz kanpoko eta aisialdi antolatuko arloaren eraginkortasuna handitzea euskaraz eskolaturiko haur eta nerabeen artean eta euskarazko eskolazetik datozen gazteen artean euskararen erabilera areagotzeko.	4	3	% 75	7	5	% 71
1.3. Euskarazko komunikaziorako tresna teknologikoetan duen presentzia handitzea, hizkuntzaren gizarte erabilera sustatzeko, euskararen erabilera beste zeinahi hizkuntzarena bezain erraza eta samurra eginez.	2	2	% 100	2	2	% 100
1.4. Euskarazko hedabideen eskaintza eta erdaraz diren hedabideetan euskaraz duen tokia zabaltzea, herritarrei euskarazko informazioa eskuragarriago eta errazago paratzeko.	2	2	% 100	7	4	% 57
1.5. Saltokietan, zerbitzu profesionaletan eta enpresetan euskararen presentzia eta erabilera areagotzea.	3	3	% 100	11	4	% 36
1.6. Euskarazko sormenezko kultura produktu eta jardueren eskaintza zabaltzea euskararen bidez hiztunak bizi duen esperientzia estetiko eta zirrarazkoa euskararen erabilera sendogarria izan dadin.	2	2	% 100	4	4	% 100
1.7. Udalerrri euskaldunetako edo euskararen arnaguneetako euskararen erabilera indartzea, aurrerantzean ere euskaraz segi dezan izaten eskualde horietako gizarte-bizitza ardatzen duen elementua.	1	1	% 100	5	1	% 20
1.8. Nafarroako euskalkiak eta euskararen aldaerak zaintzea, garatzea eta hedatzea, herritarrek ezagutu, balioetsi eta erabil ditzaten.	2	2	% 100	4	3	% 75
1. ARDATZA GUZTIRA	19	18	% 95	47	30	% 64

2.1.2 Hiztun berriak

Helburu nagusia: Euskarazko hiztunak irabaztea, haurrak nahiz helduak euskarazko hiztun bilakatzeko prozesua nafarroa osoan eta baldintzarik hoberenetan bermatzen

2. ARDATZA. HIZTUN BERRIAK

2016 - 2019 epealdiko jarduerarik aipagarrienak

- ☑ **Programak, jarduerak, ekimenak, kanpainak, erakusketak, materialak eta halakoak**

 - Helduek euskara ikas dezaten sustatzeko komunikazio kanpaina urtero arloko eragileekin lankidetzaz.
 - 3 urteko haurrak euskaraz eskolaztearen aldeko kanpainak egin dira toki entitateekin batera.
 - "Mintza laguntzaileak" ekimenari lagundu zaio (161 ikastalde).
 - Euskara ikaste prozesua indartzeko mintza-taldee laguntza (15 udalerritan).
 - Maisu-maistragai nafarrek Ipar Euskal Herrian ikasketak bukatzeko eta hango hezkuntza sisteman aritzeko "Eskola Futura" programan parte hartu.
 - Familia bidezko euskararen transmisioa eta haurren euskarazko sozializazioa laguntzea helburu duen era. eus webguneko "A, zer baliabide sorta!" atala berritu, atondu eta zabaltzeko laguntza.
 - Euskarazko produktuen kataloga berritu eta hedatzeko laguntza.
 - Iruñerriko *Merkataritza euskaraz* liburuxka eguneratzeko eta argitaratzeko laguntza.
 - Etorri berriendako harrera programei laguntza: Nafarroako Udaletako Euskara Teknikarien Sareak (NUETSek) egindako argitalpena; Bortzirietan bolondresak osatutako harrera sarea sortu eta etorri berriak euskara ikastera animatzeko bideoa ekoiztu.
 - 51 haur eskoletan euskarazko taldeak eskaini dira.
- ☑ **Lankidetzak**

 - Nafarroako Udaletako Euskara Teknikarien Sarearekin (NUETSekin).
 - Hezkuntza Departamentuarekin eginiko lankidetzak berezia.
 - Hezkuntza arloko eragileekin, bai publikoekin bai gizarte ekimenekoekin, Nafarroako Irakaskuntza Mahaian - NIMen.
- ☑ **Hezkuntzan garatutakoak**

 - 4/2015 Foru Legea garatzeko, eremu ez-euskalduneko 14 herritan D eredu unitateak sortu dira.
 - Material didaktikoak: D eredu Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan entzumena lantzeko 13 proposamen didaktiko argitaratu; Batxilergorako eta DBHrako "Eskolako Literatur Kanona" proiekturako 18 sekuentzia didaktiko argitaratu; A eredu ikasleendako 7 baliabide didaktiko "Adi-Adi" egitasmoan.
 - Programak eta jarduerak: Lehen Hezkuntzan euskal idazleak eta musikariak ikasgelara eramateko "Liburuak gozagarri" eta "Musikariak ikasgelan" programak; "Bertsolaritza irakaskuntzan" programa (1.200 ikasle); "Zinema euskaraz" jardura (4.500 ikasle); Egonaldiak herri euskaldunetan (40 ikastetxe, 1.050 ikasle ikasturte bakoitzean).
 - Lanbide Heziketan 24 ziklo eskaini dira euskaraz.
 - NUPeko graduatan eta graduondoetan euskaraz kreditu gehiago eskaini dira: 27 gradutan 245 irakasgai euskaraz daude; Irakasletza graduondoan Euskara eta Literatura berezitasuna eta "Ingurumen agrobiologia" graduondoan irakasgai batzuk.
- ☑ **Prestakuntza eta ikerketa jarduerak**

 - Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuari buruzko prestakuntza-jarduerak (21 ikastetxe).
 - Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua diseinatzen laguntzeko mintegia (24 ikastetxe).
 - Ikerlanak: *DBHko ikasleen hizkuntza atxikimendua hobetzeko ikerketa eta esku-hartzea* (2019), Hezkuntza Departamentuak parte hartu duena.
- ☑ **Dirulaguntzak**

 - Guztira, dirulaguntzetan 2016an 640.000 banatzen ziren eta 2019an 1.050.000 €.
 - Euskaltegiarako deialdian: 2016-17an 640.000 € eta 2019-20an 900.000 €.
 - BERRIA, 2018tik ikasleendako deialdian: 2017-18an 100.000 € eta 2019-20an 150.000 €.

2. ARDATZA. HIZTUN BERRIAK

HELBURU ESPEZIFIKOAK	ARLOAK	LANDUTAKO ARLOAK	LANDUTAKO ARLOAK	EKINTZAK	LANDUTAKO EKINTZAK	LANDUTAKO EKINTZAK
2.1 Orokortzea herritar orok euskaraz eskolatzeko duen aukera, hezkuntza inklusiborako elementu den aldetik. Horrela, beren seme-alabek euskaraz ikastea nahi duten familiek kalitatez izanen dute bermatua hautu hori Haur Hezkuntzatik hasi eta irakaskuntzaren goi mailaraino.	6	6	% 100	19	16	% 84
2.2 Haurrak eta nerabeak euskarazko hiztun bilakatzeko eta euskaraz sozializatzeko prozesua sendotzea eskolaz kanpoko hezkuntza arloetan, batik bat aisialdi eta kirol jardueretan; haur-gaztetxoek euskaraz berez, aise eta eroso komunikatzeko.	4	4	% 100	5	5	% 100
2.3 Familien barneko harremanetan euskararen erabilera handitzea, euskaraz eskolatzen diren haurren eta gurasoen arteko harremanetan euskara sartzea, horiendako guztiendako hizkuntza ikastearen eta erabiltzeko motibazioaren indargarria izateko.	2	2	% 100	4	3	% 75
2.4 Helduen euskarazko ikaskuntza handitzea eta bermatzea Nafarroa osoan, arlo honetako eragile eta entitateen lana lagunduz, ikastegian hasteko baldintzak erraztuz eta ikastetik erabilera aktiborako trantsizioa bultzatuz.	3	3	% 100	8	7	% 88
2. 5. Kanpotik Nafarroara etorritako herritarrek euskara ikas dezaten sustatzea eta horretarako modua ematea, bultzatuz euskara ikus dezatela haiek eta haien seme-alabek bertakotzeko eta bizimodua hobetzeko baliabide gisa.	1	1	% 100	3	2	% 67
2. ARDATZA GUZTIRA	16	16	% 100	39	33	% 85

2.1.3 Zerbitzu publikoak

Helburu nagusia: administrazio publikoak zerbitzua euskaraz emateko gaitzea eta zerbitzu publikoetan euskararen eskaintza handitzea

3. ARDATZA. ZERBITZU PUBLIKOAK

2016 - 2019 epealdiko jarduerarik aipagarrienak

- ☑ **Foru Administrazioaren departamentuak hobeki gaitzea gizarteak zerbitzua euskaraz jasotzeko**

 - 2015-2019 legegintzaldiko bederlatzi departamentuek onetsi zituzten, foru agindu bidez, beren hizkuntza-planak.
 - Bederlatzi planetan, identifikatuta zeuden lehentasunezko unitateak, bai eta zer lanpostuk eta zenbat plazak izango zuten hizkuntza eskakizuna.
 - 7 departamenturi buruzko txostenak egin eta sinatu zituen, non ontzat jotzen ziren proposatutako postuak eta plaza kopuruak. Horietatik 5 eraman ziren mahai sindikalera. Mahai sindikalak 3 departamenturen gaineko erantzuna eman zuen. 3 departamentu horietatik, 2 izan ziren prozesua burutu zutenak, eta, hala, beren plantilla organikoetan aldaketak onartzen dituzten foru dekretuak argitaratu ziren. Hirugarrenaren kasuan 69/2019 Foru Agindua, maiatzaren 23koa, aplikatzen hasi da.
 - Departamentuetako langileen euskara maila jakitea helburu, hurbilpen bat egin da eta datu horiek hizkuntza-planetara eraman dira.
 - Osasunbidean, langileen hizkuntza-gaitasuna eta trebakuntza-beharrak aztertu dira profesionali eginiko inkestak bidez Nafarroako eremu euskalduneko eta Pirinioetako Lehen Mailako Arretan, bai eta eremu mistoan ere (osasun etxeetan eta ospitalegunean).
- ☑ **Langileak trebatzea euskarazko zerbitzuen eskaintza eta arreta handitzeko**

 - Prestakuntzaren Ataleko ikasleen artean, langileen eginkizunak kontuan hartzen hasi dira ikastaroetan hartzeko zerrendak osatzerakoan.
 - Osasunbideko langileei euskara hiru ikastaro trinko egiteko aukera eskaini.
 - Ikastaro espezifikoen eskaintza eta prestakuntza berezia.
 - Itzulpen Atalean lan prozesuak aztertu eta dokumentatu. Itzulpenen inguruko datuen azterketa, lan fluxuei egoki aurre egin ahal izateko jauzi bat egin da. Itzulpen-eskaerak kudeatzeko tresna bat ezarri da (Itzulpenflow); Hezkuntza Departamentuko itzulpen-eskaerekin jarri da abian.
 - Hezkuntza Departamentuan, itzulpen automatikoko tresna bat ezarri da lanpostu jakin batzuetan.
 - Toki entitateetako euskara teknikariei eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko itzultzaile-teknikariari eskura jarri zaizkie Wordfast (ordenagailuz lagundutako itzulpen-tresna bat) eta Idazlagun izeneko zerbitzua.
 - Langile euskaldunak identifikatzeko mahai-gainekoak banatu dira Hezkuntza Departamentuan, Kultura Departamentuan eta Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuan bai eta Euskararen Prestakuntzaren Ataleko ikasleen artean ere.
 - Osasunbidean hizkuntza paisaia aztertu da: eremu euskalduneko eta mistoko osasun etxeetan, osasun mentalean eta ospitalegunean. Herritarrei harrera ele bietan egiteko gomendioak landu dira. Herritarrekiko idatzizko harremanetarako proposamena landu da. Profesional euskaldunak identifikatzeko mahai-gaineko eta txapa bereziak egin eta banatu dira.
- ☑ **Toki entitateekiko lankidetzak marko sistematizatzea eta hizkuntza politikari dakarzkieten emaitzak hobetzea**

 - Nafarroako toki entitateetako euskara zerbitzu berriak sortu dira: Irantzuko Mankomunitatekoa, Izarberibarko Mankomunitatekoa, Lizoain-Arriasgoitiko Udalekoa eta Noain-Elortzibarko Udalekoa.
 - Toki entitateek egindako kontsulten kudeaketa, gai hauek: toponimia, udalerriak hizkuntza eremuz aldatzea, euskara ordenantzak, toki entitateetako plantillak, datu soziolinguistikoak, euskara zerbitzua sortzeko aukerak, besteak beste.

3. ARDATZA. ZERBITZU PUBLIKOA

HELBURU ESPEZIFIKOAK	ARLOAK	LANDUTAKO ARLOAK	LANDUTAKO ARLOAK	EKINTZAK	LANDUTAKO EKINTZAK	LANDUTAKO EKINTZAK
3.1. Langileek duten euskararen ezagutza mailaren diagnostiko osoa egitea eta elebidunak izan behar duten lanpostuak identifikatu eta zehaztea. Informazio hori erabiltzea Foru Administrazioaren hizkuntza plangintza egiteko.	2	2	% 100	4	4	% 100
3.2. Foru Administrazioaren departamentuak hobeki gaitzea gizarteak zerbitzua euskaraz jasotzeko.	2	1	% 50	6	2	% 33
3.3 Langileak trebatzea euskarazko zerbitzuen eskaintza eta arreta handitzeko.	3	3	% 100	12	10	% 83
3.4 Toki entitateekiko lankidetzak markoa sistematizatzea eta hizkuntza politikari dakarzkien emaitzak hobetzea.	3	2	% 67	4	2	% 50
3.5 Estatuko Administrazioari erraztea Foru Komunitatean ematen dituen zerbitzuetan euskararen erabilera sartzeko duen helburua. (*)	1	0	% 0	1	0	% 0
3. ARDATZA GUZTIRA	11	8	% 73	27	18	% 67

(*) 3.5 helburu espezifikoari buruzko azalpena: Estatuko Administrazioarekin hitzarmenik adostu ez bada ere, Estatuko Administrazioak Nafarroan dituen langileek Euskarabidearen Euskaltegian euskara ikastea dute eta hala egin dute azken urteotan eskatu dutenek: 2012tik 29k egin du euskara ikastaroren bat Euskarabidearen Euskaltegian.

2.1.4 Prestigioa eta erakargarritasuna

Helburu nagusia: euskara gizartearen balio positiboetara lotzea, modu atzeraezin eta betikoan

4. ARDATZA. PRESTIGIOA ETA ERAKARGARRITASUNA

2016 - 2019 epealdiko jarduerarik aipagarrienak

✓ **Euskararen irudia eta prestigioa**

- Nafarroako Gobernuak bere irudi korporatiboan ele biko sinbolo ofiziala arautu du 4/2016 Foru Dekretuan eta egoitzetako errotulazio nahiz bideetako informazio seinale berriak ele bitan paratu dira.
- Nafarroako Gobernuaren jendaurreko agerraldietan eta komunikazioetan hizkuntza irizpide batzuk ezarri euskarak tokia izan dezan.
- Nafarroako Gobernuak goi kargu batzuen euskarazko trebatze berezia ahozko agerraldietarako.
- Nafarroako toponimia ofiziala ezagutzera emateko jarduerak (mapak, errotulazioa, argitalpenak...).

✓ **Komunikazio kanpainak**

- Euskararen Nazioarteko egunaren inguruan (abenduak 3 aldera), euskararekiko sentiberatze eta motibatze kanpaina.
- Hizkuntzen Europako Egunaren inguruan (irailak 26 aldera) hizkuntza aniztasuna sustatzeko kanpaina.

✓ **Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta aldizkari zientifikoaren 50. urteurrena**

- Nazioarteko biltzarra antolatu: "FLV, 50 urte: metodo eta joera berriak (euskal) hizkuntzalaritzan / FLV, 50 años: Nuevos métodos y tendencias en la lingüística (vasca)"
- Joan Amendux XVI. mendeko iruinearen eresiari musika eman, bideoa egin eta hedatu.

✓ **Sentsibilizazioa: euskararen balioa eta garrantzia Nafarroaren historian eta nortasunean**

- "Navarrorum. Euskararen gaineko dokumentu nafarren bi mila urteko ondarea / Dos mil años de documentos navarros sobre el euskera" erakusketari laguntza eman.
- Navarrorum erakusketaren ibiltaritza Nafarroan, EAEn eta Baxenafarroan barna.

✓ **Nafarroaren izaera elebiduna nazioartean**

- Navarrorum erakusketara Bruselara eraman.
- Bruselan eleaniztasunari buruzko mintegia antolatu: "Plurilingualism intercultural understanding and promotion of minority and regional languages".

✓ **Udalerrri euskaldunak edo euskararen arnaguneak**

- Udalerrri euskaldunetan "Arnasa Gara" komunikazio kanpaina.
- "Kartzela" webserie digitala zabaltzeko gizarte arnaguneen balioaz sentsibilizatzeko.

✓ **Webgunea eta gizarte sareak**

- Webgunea eraberritu eta eduki berriez elikatu.
- Gizarte sareak dinamizatu.
- Nafarroa.eus domeinua sortu.

✓ **Euskararen presentzia biltzarretan eta gizartearen interesa biltzen duen jardueraren orotan**

- Biltzarrak edo jardunaldiak: IkerGazte nazioarteko ikerketa euskaraz (2017), Aniztasuna osasunean (2017), Congreso Interpirenaico de Medios de Proximidad (2019), TOKIKOM tokiko euskarazko hedabideen elkarrekin antolatutako jardunaldia eta sariketa (urtero), besteak beste.
- Euskararen aldeko gizarte ekimeneko ekitaldiak: Korrika eta Nafarroa Oinez.

4. ARDATZA. PRESTIGIOA ETA ERAKARGARRITASUNA

HELBURU ESPEZIFIKOAK	ARLOAK	LANDUTAKO ARLOAK	LANDUTAKO ARLOAK	EKINTZAK	LANDUTAKO EKINTZAK	LANDUTAKO EKINTZAK
4.1 Euskararen irudia eta prestigioa hobetzea, euskarak Nafarroaren balio positiboekin eta etorkizuneko balioekin duen lotura azkartuz.	8	7	% 88	24	14	% 58
4.2 Euskara hurbiltzea beren errealitatekin urrun sentitzen duten herritar nafarrei.	1	1	% 100	3	1	% 33
4.3 Euskararen presentzia gehitzea gizartearen paisaian eta bizitzan, Nafarroaren hizkuntza errealitatearen isla gisa.	2	1	% 50	4	2	% 50
4. ARDATZA GUZTIRA	11	9	% 82	31	17	% 55

2.1.5 Ekonomia eragilea

Helburu nagusia: euskarak duen balio paregabea eta mintzairatako dituen ezaugarriak nafarroako sektore ekoizle, teknologiko eta berritzaileekin elkartzea

5. ARDATZA. EKONOMIA ERAGILEA

2016 - 2019 epealdiko jarduerarik aipagarrienak

- ✓ **Euskararen ahalmen ekonomikoaz gehiago ezagutu**

 - Nafarroako arlo sozioekonomikoan euskarak duen egoera ezagutzeko ikerketa egin da: "Euskarak Nafarroan duen dimentsio eta eragin ekonomikoaren ebaluaketa eta sustapen ekintzak", lehen azterketa dena Nafarroako arlo sozioekonomikoan euskarak duen tokia ezagutzeko.
 - Euskarak dituen aukeren inguruan arlo sozioekonomikoko eragile nagusien (klusterren) iritziak bildu dira.
 - Euskara aberastasun sortzailetakoa lantzeko potentzialtasun handieneko azpisektore ekonomikoak identifikatu dira.
- ✓ **Euskararen dimentsio ekonomikoa gizarteratu**

 - Ikerketaren emaitzak gizarteratu: arlo sozioekonomikoko sektoreko eragileei, euskaingintzako kideei eta Euskarabideko langileei aurkeztu zaizkie.
 - Euskaltzaindiak 2019an antolatutako Jagon jardunaldietan Nafarroako arlo sozioekonomikoan euskarak duen egoera agertu.
 - Nafarroako Unibertsitate Publikoan 2016an antolatutako enplegu jardunaldian lan arloan euskara jakitearen balioa agertzeko erakustokia paratu.
- ✓ **Euskara produktu edo zerbitzu gisa**

 - 948 Merkatuan, Nafarroako arteen merkatuan euskarak toki izateko babesletza urtero.
- ✓ **Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak**

 - Euskara informazio eta komunikazio teknologietan lantzeko diru-laguntza deialdiak sortu dira.
- ✓ **Diru-sarrera gehigarriak**

 - POCTEFA Espainia-Frantzia-Andorra Interreg programaren lurraldeen arteko lankidetzako dirulaguntzetarako deialdiaz baliatu da Euskarabidea bi proiektutan Euskal Herriko beste erakunde publikoekin batera: Euskararen Adierazle Sistema - EAS proiektua aurkeztu eta Eskola Futura proiektua. Bietan dirulaguntza jaso du.

5. ARDATZA. EKONOMIA ERAGILEA

HELBURU ESPEZIFIKOAK	ARLOAK	LANDUTAKO ARLOAK	LANDUTAKO ARLOAK	EKINTZAK	LANDUTAKO EKINTZAK	LANDUTAKO EKINTZAK
5.1. Euskara Nafarroaren ekonomiaren eragile bilakatuko duten ekimenak garatzeko oinarriak ezartzea, euskarak ondare materiagabetzat duen balio paregabea eta mintzairatuko dituen ezaugarriak Nafarroako sektore ekoizle, teknologiko eta berritzaileei lotuz.	2	1	% 50	5	1	% 20
5.2. Euskara (produktua / zerbitzua) balio erantsia den ekoizpen sektoreetan edo euskararen erabilera enpresa ereduaren elementu bereizgarria den tokietan, Nafarroan onurak eta garapen ekonomikoa sortzeko aukera emanen duten ekimenak sustatzea.	2	1	% 50	4	1	% 25
5.3. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak euskararen berezko garapen-hobi bihurtzea, euskara eta modernitatea estuago estekatzeko estrategia gisa.	1	1	% 100	1	1	% 100
5.4. Diru-sarrera gehigarriak sortzeko bideak jorratzea, Nafarroan euskarak duen kokapena hobetzeari eraginen diotenak eta Euskarabideak itzulkin ekonomikoak sorrarazteko gaitasuna piztuko dutenak.	1	1	% 100	1	1	% 100
5. ARDATZA GUZTIRA	6	4	% 67	11	4	% 36

2.1.6 Hizkuntza esparrua

Helburu nagusia: programa akordioarekin bat, plan honen helburuak betetzea ahalbidetuko duen araugintza lantzea, hizkuntza eskubideak babesteko dituen eta euskararen sustapena bultzatuko duen hizkuntza politika dinamizatzen lagunduko duena. Horretaz gain, beste erakundeekin lankidetzak sakontzea eta hizkuntza plangintzarako datu soziolinguistikoak, orokorrak nahiz arlokakoak, aldian-aldian eskuratzea

6. ARDATZA. HIZKUNTZA ESPARRUA

2016 - 2019 epealdiko jarduerarik aipagarrienak

- ✓ **Araugintza**
 - 78/2017 Foru Dekretua, irailaren 6koa, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak, abuztuaren 28ko 130/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, aldatzen dituenak.
 - 103/2017 Foru Dekretua, azaroaren 15ekoa, euskararen erabilera arautzen duena Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan.
 - 43E/2017 Foru Agindua, azaroaren 22koa, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak emana, kultura elkarteek edo gizarte ekimeneko entitateek Euskararen Nafar Kontseiluan parte hartzeko prozedura ezartzen duena.
 - 5/2018 Foru Dekretua, otsailaren 28koa, Nafarroako Gobernuak hartua, irizpideak ezartzen dituen Nafarroako biziguneeen izenak erabiltzeko eta haiek grafikoki adierazteko.
 - 303/2019 Foru Dekretua, azaroaren 6koa, Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituenak.
- ✓ **Euskararen Nafar Kontseiluaren osaera berritu eta lantaldea sortu**
- ✓ **Lankidetzak hitzarmenak**
 - Hitzarmenak Euskaltzaindiarekin, Eusko Ikaskuntzarekin eta Topagunea euskara elkarten federazioarekin.
 - Hiruko Ituna: Nafarroako Gobernuaren, Eusko Jaurjaritzarekin eta Euskararen Erakunde publikoarekin lankidetzak hitzarmen espezifikoak, euskararen sustapenari buruzkoa. Urtero interes komuneko proiektuak adostu eta elkarlanean garatu.
 - European Network to Promote Linguistic Diversity - NPLD sare europarreko kide izan eta era aktiboan parte-hartu.
 - Nafarroako Gobernuaren Estatuko autonomia erkidego elebidunetako agintaritzaren erakundeek (Euskadikoek, Kataluniakoek, Valentziakoek, Galiziakoek eta Balear Uharteetakoek) hizkuntza arloan lankidetzak bideratzeko Protokoloak kidea izan eta era aktiboan jardun.
- ✓ **Euskararen egoeraren diagnosia eta azterlanak**
 - 2016an VI. Inkesta Soziolinguistikoa, Eusko Jaurjaritzarekin eta Euskararen Erakunde publikoarekin lankidetzaz.
 - 2016an Soziolinguistika Klusterrak egindako *Hizkuntzen erabilera kale neurketa*. *Euskal Herria, 2016* ikerlanari laguntza eman.
 - Euskararen Adierazle Sistema - EAS proiektuan Euskal Herriko beste erakunde publikoekin batera jardun. EAS elikatzeko informazioa eskuratzeko hitzarmenak sinatu eta datu-bilketa sistematizatu.
 - *Nafarroako ikasleen euskararen erabilera, 2018 - 2019. Izaskun Arrue ikerketa*, lau urtetan behin egiten dena Hizkuntza Departamentuarekin lankidetzaz.
 - 2018ko Gizarte eta Bizi Baldintzen gaineko Inkesta, Nafarroako datu soziolinguistikoak eguneratzen dituenak.
 - 2018an egin den Euskaraldiaren ariketa masiboak Nafarroan izan duen eragina neurtzeko ikerketa.
 - Euskararen errealitate demolinguistikoaren ezagutza hobetzen lagunduko duten erregistro estatistiko administratiboak identifikatzea.
- ✓ **Toponimia ofiziala**
 - Toponimia ofiziala erabiltzeko irizpideak gizarteratu: *Nafarroako toponimia erabiltzeko oinarriko jarraibide teknikoak / Instrucciones técnicas básicas para el uso de la toponimia de Navarra* gida argitaratu.
 - Nafarroako toponimiaren gaineko ikerketek laguntza eman: Etxarri Aranazko, Goizuetako, Erronkaribarreko, Aezkoako eta beste toki entitateetako izen geografikoak biltzeko azterlanak.
- ✓ **Proiektuetarako finantzaketa bilatu**
 - Bi proiektu handi Nafarroako Gobernuaren Kultura Zuzendaritza Nagusiarekin finantzatu dira: "Navarrorum. Euskararen gaineko dokumentu nafarren bi mila urteko ondarea / Dos mil años de documentos navarros sobre el euskera" erakusketa eta Fontes Linguae Vasconum aldizkari zientifikokoaren 50. urteurrenaren gaineko ekitaldiak.
 - European Network to Promote Linguistic Diversity - NPLD sare europarreko beste kideekin batera Nafarroako Gobernuak bi proiektutan parte hartu du: Europako Kontseiluaren "COS-TOURSYN-2018-3-01: Supporting the development and promotion of transnational thematic tourism products—exploiting synergies between tourism and cultural and creative industries" deialdian bat eta Erasmus+ Key Action 3: Support for policy reform - Initiatives for policy innovation deialdian beste bat, honako izena duena: "Programas de formación continua destinados al profesorado de modelos de inmersión de lenguas minorizadas, con objeto de formar al profesorado en la enseñanza de la lengua oral" proiektua aurkeztu da. Lehengoa ez zen aukeratua izan. Bigarrena ebazteko dago.

6. ARDATZA. HIZKUNTZA ESPARRUA




HELBURU ESPEZIFIKOAK	ARLOAK	LANDUTAKO ARLOAK	LANDUTAKO ARLOAK	EKINTZAK	LANDUTAKO EKINTZAK	LANDUTAKO EKINTZAK
6.1. Nafarroako administrazio publikoetan eta, oro har, gizarteak jasotzen dituen zerbitzuetan euskararen erabilera arautzea, herritarrak zerbitzu publikoez euskaraz baliatu ahal izateko, gaztelaniaz besteko eraginkortasun eta erraztasun baldintzetan.	2	2	% 100	9	6	% 67
6.2. Euskarak Nafarroan duen egoera soziolinguistikoa, orokorra nahiz arlokakoa, ezagutzeko datuak eta adierazleak eskuratzea, gizarteari eskaintzeko eta hizkuntza politika aldi oroz euskararen errealitatearen gaineko informazio oso eta eguneratua oinarritzeko.	1	1	% 100	4	3	% 75
6.3. Nafarroako toponimia arautzea gizarteak hura ezagutu eta zuzen erabil dezan.	1	1	% 100	2	2	% 100
6.4. Finantzaketa eta baliabide ekonomikoak bilatzeko plana garatzea, Plan Estrategikorako funts gehigarriak eskuratzea ahalbidetuko duena eta euskararen prestigioa handitzeko balio izanen duena.	1	1	% 100	2	1	% 50
6.ARDATZA GUZTIRA	5	5	% 100	17	12	% 71

2.2 Laburpen koadroak

2.2.1 Exekuzio maila kuantitatiboa

EXEKUZIO MAILA	DAGOKION KOLOREA
<% 50	Gorria
% 50 eta % 69 bitartekoa	Laranja
% 70 eta % 89 bitartekoa	Berde argia
>% 90	Berde iluna

HELBURU ESPEZIFIKOAK	LANDUTAKO HELBURU ESPEZIFIKOAK	ARLOAK	LANDUTAKO ARLOAK	EKINTZAK	LANDUTAKO EKINTZAK				
1. ardatza. Gizarte erabilera	8	8	% 100	19	18	% 95	47	30	% 64
2. ardatza. Hitzun berriak	5	5	% 100	16	16	% 100	39	33	% 85
3. ardatza. Zerbitzu publikoak	5	4	% 80	11	8	% 73	27	18	% 67
4. ardatza. Prestigioa eta erakargarritasuna	3	3	% 100	11	9	% 82	31	17	% 55
5. ardatza. Ekonomia eragilea	4	4	% 100	6	4	% 67	11	4	% 36
6. ardatza. Hizkuntza esparrua	4	4	% 100	5	5	% 100	17	12	% 71
EPE (guztira)	29	28	% 97	68	58	% 85	172	114	% 66



2.2.2 Arloen lanketa

Hurren taulan I. PEko arloen lanketa azaltzen da, laukia berdez tindaturik arlo landuak adierazteko eta laukia gorriz, landugabeak.

GIZARTE ERABILERA	GAUZATZEA	GIZARTE ERABILERA	GAUZATZEA
1.1.1. Eskaintza eta gizarte erabilerarako aukerak handitzea		1.4.2. Gaztelaniazko hedabideak	
1.1.2. Erabilera sustatzea		1.5.1. Sustapen ekimenak	
1.1.3. Erabilera aktibatzea		1.5.2. Lankidetzak	
1.2.1. Gizarte eragileak kontzientziatzea		1.5.3. Prestakuntza eta baliabideak	
1.2.2. Hizkuntza irizpideak		1.6.1. Kultura sorkuntza	
1.2.3. Prestakuntza		1.6.2. Euskara kontsumoa	
1.2.4. Gazteen artean erabilera sustatzea		1.7.1. Udalerri euskaldunak	
1.3.1. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak		1.8.1. Euskalkiak eta aldaerak	
1.3.2. Sare sozialak.		1.8.2. Ondare materiagabearen digitalizazioa eta hedapena	
1.4.1. Euskarazko hedabideak			

HIZTUN BERRIAK	GAUZATZEA	HIZTUN BERRIAK	GAUZATZEA
2.1.1. Haur Hezkuntza (lehen zikloa [0-3 urte] eta bigarren zikloa [3-6 urte])		2.2.3. Hezitzaile monitoreen prestakuntza	
2.1.2. Derrigorrezko hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Unibertsitatea		2.2.4. Hizkuntza erabileren azterketa	
2.1.3. Irakasleen prestakuntza		2.3.1. Baliabideak	
2.1.4. Material didaktikoak		2.3.2. Familiei informazioa ematea	
2.1.5. Orokortzearen bermea		2.4.1. Eskaintza orokortzea	
2.1.6. Gizarte titulartasuneko ikastolak		2.4.2. Koordinazioa eta lankidetzak	
2.2.1. Erabileraren bitartez ikasi		2.4.3. Trantsizioa ikastetik erabiltzera	
2.2.2. Hizkuntza ohiturak finkatzea		2.5.1. Kanpotik Nafarroara etorritakoak	

ZERBITZU PUBLIKOAK	GAUZATZEA	ZERBITZU PUBLIKOAK	GAUZATZEA
3.1.1. Langileek duten euskararen ezagutza mailaren diagnostikoa		3.3.3. Herritarrentzako euskarazko arreta	
3.1.2. Lanpostu elebidunak identifikatu eta zehaztu		3.4.1. Lankidetzak markoa toki entitateekin	
3.2.1. Zerbitzu nagusiak eta ele biko ibilbideak		3.4.2. Euskararen unitate tekniko berriak	
3.2.2. Euskararen zeharkakotasuna eta departamentuetako plangintza		3.4.3. Aholkularitza	
3.3.1. Langileak trebatzea		3.5.1. Lankidetzak hitzarmena Estatuko Administrazioarekin	
3.3.2. Itzulpenak eta laguntza teknikoa euskarazko zerbitzuak emateko			

PRESTIGIOA ETA ERAKARGARRITASUNA	GAUZATZEA	PRESTIGIOA ETA ERAKARGARRITASUNA	GAUZATZEA
4.1.1. Komunikazio estrategia		4.1.7. Euskararen balioa	
4.1.2. Erakunde publikoak eredu		4.1.8. Arnasguneen balioa	
4.1.3. Euskararen erreferente positiboak		4.2.1. Sentsibilizazioa	
4.1.4. Praktika sozial onak		4.3.1. Euskararen presentzia gizartearen paisaian eta bizitzan	
4.1.5. Hedabideen eragina		4.3.2. Toponimia	
4.1.6. Euskaldunen ahalduntzea			


EKONOMIA ERAGILEA	GAUZATZEA	EKONOMIA ERAGILEA	GAUZATZEA
5.1.1. Euskararen ahalmen ekonomikoa		5.2.2. Euskara balio erantsi gisa	
5.1.2. Estrategia turistikoa		5.3.1. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT)	
5.2.1. Euskara produktu / zerbitzu gisa		5.4.1. Diru sarrera gehigarriak ekimen propioen bidez	

HIZKUNTZA ESPARRUAK	GAUZATZEA	HIZKUNTZA ESPARRUAK	GAUZATZEA
6.1.1 Araudia		6.3.1 Toponimia	
6.1.2 Lankidetzak hitzarmenak eta akordioak		6.4.1 Finantzaketa	
6.2.1 Diagnostikoa eta azterlanak			

03 Programa akordioaren betetzea

2015-2019 legealdirako Programa Akordioko konpromisoen, hizkuntza politikari dagozkionen betetze maila % 86 izan da, hona aleturik:

EXEKUZIO MAILA	DAGOKION KOLOREA
<% 50	Gorria
% 50 eta % 69 bitartekoa	Laranja
% 70 eta % 89 bitartekoa	Berde argia
>% 90	Berde iluna



PROGRAMA AKORDIOA

1. Arauzko esparru egoki bat garatzea, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko.

5. Komunikazio estrategia berri bat aplikatzea, berritzailea eta integratzailea, euskarari prestigioa emateko gizaritearen begietan eta gizaritea Euskara jakiteko eta erabiltzeko sentsibilizatzeke.


6. Euskararen Nafar Kontseilua berritzea, gizaritearen parte-hartze handiagoa izan dadin haren osaeran eta eskumen gehiago izan ditzan.

IRUZKINAK

Arauzko esparru egokia onartu zen (103/2017 Foru Dekretua, azaroaren 15ekoa, euskararen erabilera arautzen duena Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan) eta errekurtsioak aurkeztu ziren. 2019ko irailean epaiak atera ziren eta zenbait artikulua eta atal baliogabeturik geratu ziren.

Euskarari prestigioa ematea helburu duten sentsibilizazio kanpainak eta kanpaina sektorialak egin dira. Halere, komunikazio estrategia orokorra ez da gauzatzera iritsi.

Alde biko harremanak garatu dira baina Kontseiluaren parte-hartzea modu eraginkorrean bideratzeko funtzionamendua egonkortzea (lantaldeak edo batzordeak sortu eta dinamizatzea...) ez da lortu.



PROGRAMA AKORDIOA

IRUZKINAK

8. Administrazioaren esparruan herritarrei ahal bezainbat euskaraz erantzuten saiatzeko konpromisoa hartzea, haien hizkuntza eskubideak bermatzeko eta, horretarako, langileen diagnostikoa egitea eta ele biko ibilbideak prestatzea.

Herritarrak euskaraz artatzeko departamentuetako hizkuntza planak onartu dira. Administrazioan euskara garatzeak eskatzen duen planifikazio lana egoki egiteko Euskarabideak zerbitzu bat sortu du, erakundearen organigrama erronka horri egokitzeko. Foru Administrazioan euskarak duen egoeraren diagnostia osatzeko prozesuan dago. Halere, diagnostia osatu arte ezin dira ele biko ibilbideak eratu.

9. Toki entitateekiko lankidetzak hitzarmenari heltzea berriro, hizkuntza politika koordinatzeko eta erakunde publikoen balibideak trukatzeko, eta euskarazko udal zerbitzuen sarea handitzea, egungo eta etorkizuneko eskariari erantzuteko.


Balibide ekonomikoak handitu dira. Lau udaletan euskara zerbitzuak sortu dira: Irantzuko Mankomunitatekoa, Izarbeibarko Mankomunitatekoa, Lizoain-Arriasoitiko Udalekoa eta Noain-Elortzibarko Udalekoa. Halere, lankidetzak hitzarmenak ezin izan da gauzatu dirulaguntzei buruzko 11/2005 Foru Legeak biderik ematen ez duelako. Tokiko Mapa arautzen duen 4/2019 Foru Legeak hori gauzatzeko aukera eman dezake.

10. Helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko 2015eko kontu saila berehala erabiltzea eta hainbat urtetarako lankidetzak hitzarmen bat sinatzea, euskaltegien egonkortasuna bermatzeko, azken urteetako murrizketak erremediatzeko eta euskaltegiek beren lana egiteko behar adinako finantzaketa maila berreskuratzeko.

Balibide ekonomikoaren helburua bete da legealdiko urteetan euskaltegiarako deialdiaren diru-hornidura igo baita eta ikasleendako beka deialdia sortu baita. Egonkortasuna bermatzeko oinarriak landu dira (araudia egokitzea, helduen euskalduntzean ari diren eragileen koordinazioa, gizarte ekimeneko euskaltegiaren doakotasunera hurbiltzea) baina lankidetzak segitu behar du. Lankidetzak hitzarmenak ez da gauzatu dirulaguntzei buruzko 11/2005 Foru Legeak biderik ematen ez duelako.

12. Euskarazko komunikabideen eta euskara hein jakin batean erabiltzen dutenen finantzaketa lehengoratzeko eta hobetzea eta, horretarako, hitzarmenak eta laguntzak emateko deialdiak egitea.

Finantzaketa hobetu da eta proiektu berriak sortzeko aukera bultzatu da. Halere, lankidetzak hitzarmenak ez da gauzaterik izan dirulaguntzei buruzko 11/2005 Foru Legeak biderik ematen ez duelako.



PROGRAMA AKORDIOA

IRUZKINAK

14. Nafarroako herritar guztiek euskarazko hedabideak erabili ahal izatea ziurtatzeko neurriak hartzea.

Arlo honetan urrats nabarmenak eman badira ere, oraindik ez da telebista euskaraz Nafarroa osoan ikusten.

17. Euskara hein handi batean ezagutzen den eta oro har erabiltzen den lekuen funtzio estrategikoa aztertzea eta han politika espezifikoak aplikatzeko aukera aztertzea.

Foru Administrazioak udalerrin euskaldunetan dituen zerbitzuetan euskarak duen egoeraren diagnostia ez da bukatu. Euskara ofiziala den eremuan Nafarroako Gobernuak dituen lanpostuen azterketa egin da eta lan eskaintzetan ele biko lanpostu bermatu eremu euskaldunerako.

19. Hitzartutako neurri guztiek finantzaketa eta giza balibide nahikoak izateko konpromisoa hartzea.

Euskarabidearen aurrekontua 2,1 milioikoa izatetik 7,3 milioikoa izatera pasa da eta plantilan zeuden hutsuneak bete dira. Halere, Euskararen I. Plan Estrategikoko helburuak egoki betetzeko giza balibide gehiago izatea faltan hartu da.

04 Ebaluazioa eta eragina

4.1. Barne kudeaketa

Euskararen I. PE Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika gidatzeko eta planifikatzeko egin den lehen plangintza estrategikoa izan da.

Euskararen I. PEk Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikarako eredu estrategiko berekia landu eta garatu du.

Euskararen I. PEren iraunaldia legealdiarena izan da. Horrek arazoak ekarri ditu, ebaluazio tresnak planifikatu ezina, esaterako.

Euskararen I. PEk diagnosia egin du, hasieran eta bukaeran, aldian-aldian eskuratzen ziren adierazleak euskararen egoera eta bilakaera zehazteko metodologiara ekarri baitira.

Euskararen I. PE prozesu parte-hartzailea izan da hasieratik. Abiaburuan prozesu parte-hartzailea burutu zen, parte-hartzaileen aniztasuna bermatuz, eta garapenean ere gizartearen parte-hartzea bilatu da.

Euskararen I. PEren barne kudeaketaren sistematizazioa lortu da. Scrumtegy tresna teknologikoa baliagarria izan da kudeaketa beharretara moldatua izan den heinean.

Euskararen I. PE kudeatzeko Euskarabidearen egitura. Plantilla organikoan zeuden hutsuneak bete dira eta I. PEren 3. ardatzak zekartzan erronkei egoki erantzuteko Administrazio Publikoetan euskara garatzeko Zerbitzua sortu da.

Euskararen I. PE garatzeko baliabide ekonomikoen igoera gertatu da, urtez urte PEren ardatzetako jarduerak bultzatzeko aurrekontua handituz.

Euskararen I. PEren komunikazioa, barnekoa nahiz kanpoko, lantzeko sistema bat ezarri eta martxan jarri da.

Euskararen I. PEen hizkuntza politikaren zeharkakotasuna harroinetako bat da eta Foru Gobernuko beste unitateekiko elkarlana eskatzen zuen.

Euskararen I. PEk Euskarabidearen prozedurak sistematizatzea eta hobetzea ekarri du. Itzulpen Atalean eta Prestakuntza Atalean antolaketa hobekuntza nabarmenak egin dira eta zerbitzuen egonkortasuna lortu.

Euskararen I. PEren emaitza ona izan da: gutxienezko batzuk lortu dira eta lorpen hobeak izateko bidean jarri gara. Nafarroan herritarren hizkuntza eskubideak hobeki betetzeko bidean urrats bat eman da. Bidea luzea da.

4.2 Aginte koadroa

4.2.1 Emaitzak

ARDATZA	ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK ETA EMAITZARI LOTUAK	I. PEren hasieran	I. PEren buekaeran	Azken neurketaren urtea
1.1	Biztanleria guztia: euskararen benetako erabileraren ehunekoa. (I. PEren hasierako datua: <i>Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, 2011</i>)	% 5,7	% 6,7	2016
1.2	2-15 urteko biztanleria: euskararen benetako erabileraren ehunekoa. (I. PEren hasierako datua: <i>Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, 2011</i>)	% 7,5	% 8,6	2016
1.3	16-24 urte: euskara gehienetan edo ohikotasunez erabiltzen dutela dioten gazteen ehunekoa. (I. PEren hasierako datua: <i>VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016</i>)	% 7,6	% 5,7	2018 (GBBI/ESyCV. NASTAT)*
1.4	16 urteko edo gehiagoko biztanleria: euskara gehienetan edo ohikotasunez erabiltzen dutela dioten herritarren ehunekoa. (I. PEren hasierako datua: <i>VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016</i>)	% 6,6	% 6,0	2018 (GBBI/ESyCV. NASTAT)*
1.5	Euskarazko hedabideen kontsumoa. (I. PEren hasierako datua: ez dago. Aurreikusitako iturria: Nafarroako Komunikabideen Audientzien azterlana, CIES)	—	—	—
1.6	16 urteko edo gehiagoko biztanleria: euskara merkataritzan ohikotasunez erabiltzen dutela dioten herritarren ehunekoa. (I. PEren hasierako datua: <i>VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016</i>)	% 6,3	% 5,9	2018 (GBBI/ESyCV. NASTAT)*
1.7	Euskaldunak % 70 baino gehiago diren herrietako biztanleria: euskararen benetako erabileraren ehunekoa. (I. PEren hasierako datua: osatugabea [biztanle gehien dituen udalerrikoa jarri da: Baztan, 2015]. Aurreikusitako iturria: Soziolinguistika Klusterra)	% 61,2	% 63,9	2016
1.8	Eremu euskalduneko 16 urteko edo gehiagoko biztanleria: euskara gehienetan edo ohikotasunez erabiltzen dutela dioten herritarren ehunekoa. (I. PEren hasierako datua: <i>VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016</i>)	% 50,7	% 48,3	2018 (GBBI/ESyCV. NASTAT)*
2.1	16 urteko edo gehiagoko biztanleria: euskara ongi hitz egiten duten herritarren ehunekoa. (I. PEren hasierako datua: <i>VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016</i>)	% 12,9	% 14,1	2018 (GBBI/ESyCV. NASTAT)*
2.2	3 urteko biztanleria: euskaraz, D ereduari, eskolatuen ehunekoa. (I. PEren hasierako datua: Hezkuntza Departamentua, 2015-2016 ikasturtea)	% 28,5	% 28,7	2019 - 2020 (Hezkuntza Depart.)

* GBBI / ESyCV: Gizarte eta Bizi Baldintzen gaineko Inkesta / Encuesta Social y de Condiciones de Vida.

ARDATZA	ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK ETA EMAITZARI LOTUAK	I. PEren hasieran	I. PEren buekaeran	Azken neurketaren urtea
2.3	6-16 urteko biztanleria: euskaraz eskolatuen ehunekoa, D ereduari. (I. PEren hasierako datua: Hezkuntza Departamentua, 2015-2016 ikasturtea)	% 26,4	% 25,8	2019 - 2020 (Hezkuntza Depart.)
2.4	3-15 urteko seme-alabak dituen biztanleria: gurasoetako bakar bat euskalduna denean eta lehen hizkuntza ez duenean euskara, hizkuntza transmititu duten kasuen ehunekoa. (I. PEren hasierako datua: <i>VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016</i>)	% 54	% 61,6	2016
2.5	Euskara ikasten duen biztanleria heldua: kopuru absolutua. (I. PEren hasierako datua: Euskarabidea, 2016)	4.868	5.213	2019
3.1	Euskaraz erantzutea hizkuntza hori erabiltzen dutenei departamentu bakoitzean lehentasunezko zatitza identifikaturiko puntuetan. (I. PEren hasierako datua: ez dago. Aurreikusitako iturria: Nafarroako Gobernua)	—	—	—
3.2	Herritarrek Nafarroako Gobernuarekin on line egiten duten zeinahi tramitazio euskaraz egin ahal izateko aukera. (I. PEren hasierako datua: ez dago. Aurreikusitako iturria: Nafarroako Gobernua)	—	—	—
3.3	Larrialdietako 112 telefonoan euskara erabiltzen duten pertsonen hizkuntza horretan erantzutea. (I. PEren hasierako datua: ez dago. Aurreikusitako iturria: Nafarroako Gobernua)	—	—	—
3.4	Telefono bidezko informaziorako 012 telefonoan euskara erabiltzen duten pertsonen hizkuntza horretan erantzutea. (I. PEren hasierako datua: ez dago. Aurreikusitako iturria: Nafarroako Gobernua)	—	—	—
3.5	Nafarroako Gobernuak euskaraz egindako izaera orokorreko komunikazioak. (I. PEren hasierako datua: ez dago. Aurreikusitako iturria: Nafarroako Gobernua)	¿?	—	—
4.1	16 urteko edo gehiagoko biztanleria: euskararen erabilera sustatzearen alde dagoen biztanleriaren ehunekoa. (I. PEren hasierako datua: <i>VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016</i>)	% 33,3	% 33,3	2016
5.1	Euskararen pisua Nafarroako ekonomian: adierazlea zehazteko dago. (I. PEren hasierako datua: ez dago. Aurreikusitako datua: Nafarroako Gobernua)	—	—	—

4.2.2 Adierazleen azterketa eta proposamena

ARDATZA	ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK ETA EMAITZARI LOTUAK	II. PEn mantendu	Neurtezina	Formulazioa moldatu
1.1	Biztanleria guztia: euskararen benetako erabileraren ehunekoa.	x		x
1.2	2-15 urteko biztanleria: euskararen benetako erabileraren ehunekoa.	x		x
1.3	16-24 urte: euskara gehienetan edo ohikotasunez erabiltzen dutela dioten gazteen ehunekoa.	x		x
1.4	16 urteko edo gehiagoko biztanleria: euskara gehienetan edo ohikotasunez erabiltzen dutela dioten herritarren ehunekoa.	x		x
1.5	Euskarazko hedabideen kontsumoa.	x	x	x
1.6	16 urteko edo gehiagoko biztanleria: euskara merkataritzan ohikotasunez erabiltzen dutela dioten herritarren ehunekoa.	x		x
1.7	Euskaldunak % 70 baino gehiago diren herrietako biztanleria: euskararen benetako erabileraren ehunekoa.	x		x
1.8	Eremu euskalduneko 16 urteko edo gehiagoko biztanleria: euskara gehienetan edo ohikotasunez erabiltzen dutela dioten herritarren ehunekoa.	x		x
2.1	16 urteko edo gehiagoko biztanleria: euskara ongi hitz egiten duten herritarren ehunekoa.	x		
2.2	3 urteko biztanleria: euskaraz, D ereduan, eskolatuen ehunekoa.	x		
2.3	6-16 urteko biztanleria: euskaraz eskolatuen ehunekoa, D eredu.	x		
2.4	3-15 urteko seme-alabak dituen biztanleria: gurasoetako bakar bat euskalduna denean eta lehen hizkuntza ez duenean euskara, hizkuntza transmititu duten kasuen ehunekoa.	x		
2.5	Euskara ikasten duen biztanleria heldua: kopuru absolutua.	x		

ARDATZA	ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK ETA EMAITZARI LOTUAK	II. PEn mantendu	Neurtezina	Formulazioa moldatu
3.1	Euskaraz erantzutea hizkuntza hori erabiltzen dutenei departamentu bakoitzean lehentasunezko zatitza identifikaturiko puntuetan.		x	x
3.2	Herritarrek Nafarroako Gobernuarekin on line egiten duten zeinahi tramitazio euskaraz egin ahal izateko aukera.		x	x
3.3	Larrialdietako 112 telefonoan euskara erabiltzen duten pertsonen hizkuntza horretan erantzutea.		x	
3.4	Telefono bidezko informaziorako 012 telefonoan euskara erabiltzen duten pertsonen hizkuntza horretan erantzutea.	x	x (012 telefonoan euskarazko deiak bakarrik neurtzen dira)	
3.5	Nafarroako Gobernuak euskaraz egindako izaera orokorreko komunikazioak.		x	x
4.1	16 urteko edo gehiagoko biztanleria: euskararen erabilera sustatzearan alde dagoen biztanleriaren ehunekoa.	x		
5.1.	Euskararen pisua Nafarroako ekonomian: adierazlea zehazteko dago.	x	x (Dauzkagun datuek euskararen sektoreen dimentsioa baizik ez dute neurtzen)	x

05 Ondorio nagusiak

Euskararen I. PE Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika gidatzeko eta planifikatzeko egin den lehen plangintza estrategikoa izan da.

I. PEk Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikarako eredu estrategiko berekia landu eta garatu du. I. PEk sortutako eredu estrategikoa (zazpi ardatzatan antolatua) eredu koherente eta sendoa izan da eta guztiz baliagarri gertatu da.

I. PEren eredu eta helburuak lantzean Nafarroako Gobernuak euskararen erabilera sustatzeko hizkuntza politika inoiz eramana ez zuen zenbait arlotara eraman da, arlo sozioekonomikora, esaterako, horretan lan sistematikoago baterako oinarriak baizik paratu ez badira ere.

I. PEren helburu espezifiko % 97 (29tik 28) landu dira, arloen % 85 (68tik 58) eta ekintzen % 66 (172tik 114). Horrek ez du esan nahi gainontzekoak landu gabe geratu direnik, baizik eta, ez direla zuzenean landu, nahiz eta anitzetan, bai zeharka.

Euskararen erabilera sustatzeko laguntzak (hedabideei, elkarteei, toki entitateei eta euskaltegiei) handitu dira eta dirulaguntza deialdi berriak sortu (enpresa eta lantegiei, euskara ikasleei, euskararen gaineko argitalpen proiektuei...). Guztira 700.000 € banatzen ziren 2016an eta 1.808.000 € 2019an.

I. PEren garapenari eskainitako baliabideak (giza baliabideak [kopurutan nahiz profil egokietan] zein baliabide ekonomikoak) ez dira hasieran aurreikusitakoak izan eta jarraipenera begira, alderdi hau hobetzeko izanen litzateke.

Euskararen I. PEk Nafarroako gizartean eta euskararen egoeran izan duen eraginari dagokionez:

- 2016tik 2019ra, 16 urteko eta urte gehiagoko nafarren artean euskaraz ongi dakitenen kopurua hazi da: 69.000 (% 12,9) ziren 2016an eta 76.000 (% 14,1) dira 2019an, I. PE akiturik.
- Euskara ikasten duten nafar helduak 4.868 ziren 2015-2016 ikasturtean eta 5.213 dira 2019an.
- 2017tik Nafarroako Gobernuak helduek euskara ikasteko ematen dituen beka 650 herritarrek jaso zituzten 2018an eta 950 2019an.
- 16 urteko eta urte gehiagoko nafarren artean euskara gaztelania bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutela diotenak % 6,6 ziren 2016an eta % 6 dira 2019an. Euskararen gizarte erabilera sustatzen segitu beharko litzateke hurrengo plangintza estrategikoan.
- Haur Hezkuntzan hasten diren 3 urteko haur nafarren artean % 30 eskolatzen da euskaraz eta 2016az geroztik Nafarroako 13 eskola publiko gehiagotan eskaintzen da D eredu.
- Hizkuntza politika garatzeko gizartearen parte hartzea sustatu da eta, horretarako, Euskararen Nafar Kontseiluaren osaera zabaldu da.
- Euskalgintzarekiko lankidetzaren indartzea indartu da eta horren emaitza dira, esaterako, Euskaraldia ekimena izan da, 2018an 20.861 nafar mobilizatu zituen.
- Foru Administrazioaren irudian eta jardunean Nafarroako bi hizkuntzak erabiltzeko urratsak eman dira eta Gobernuaren departamentuetako hizkuntza planak onartu. Halere, Nafarroako Gobernuak hala nahi duten herritarrei zerbitzua euskaraz emateko bermean zer egin handia dago oraindik.

06 Hurrengo plangintza estrategikorako gomendioak

I. PEn kudeaketan Euskarabideak izan duen eskarmentua aintzat harturik plangintza estrategikoaren jarraipenerako proposamenak egiten dira.

Bestalde, aintzat harturik 2019-2023 legealdirako Nafarroako Gobernurako Programa Akordioan hizkuntza politikaren arloan adostutakoen artean Euskararen II. Plan Estrategikoa egitea dagoela, dokumentu honek zenbait gomendio eman nahi ditu, I. PEk jorratu duen bidean oinarriturik:

EUSKARAREN I. PLAN ESTRATEGIKOA	
ESKARMENTUA	GOMENDIOAK
<p>Euskararen I. PE Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika gidatzeko eta planifikatzeko egin den lehen plangintza izan da.</p>	<p>Plangintza estrategikoari jarraipena ematea</p> <ul style="list-style-type: none"> I. PEn definitu diren helburu nagusiak ez dira erabat erdietsi eta noranzko horretan planifikazioak segitu behar du. Beraz, I. PE honek segida behar du izan II. PE batean.
<p>Euskararen I. PEk Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikarako eredu estrategiko berekia landu eta garatu du.</p>	<p>Eredu estrategikoaren baliagarritasuna aitortzea</p> <ul style="list-style-type: none"> I. PEk eredu estrategiko berekia (7 ardatzak) erabili du. Planaren gauzatzean eredu estrategiko horren egokitasuna berretsi baita, II. PE definitzean aurreikusiko dituen jarduerak eredu estrategiko horrekin lerrotatuak izateko proposamen metodologia egiten da.
<p>Euskararen I. PEn iraunaldia legealdiarena izan da lotu. Horrek arazoak ekarri ditu, ebaluazio tresnak planifikatu ezina, esaterako.</p>	<p>II. PEn iraunaldia luzatzea</p> <ul style="list-style-type: none"> Programazio estrategikoak dituen helburu eraldatzaileak gauzagarriak izanen direla ziurtatzeko eta bukaeran ebaluazio adierazleak izanen direla bermatzeko, II. PEn iraunaldia luzatzea gomendatzen da, 4 urtekoa izatetik 7 urtekoa izatera pasatzea: 2020tik 2027 arte.
<p>Euskararen I. PEk diagnosia egin du, hasieran eta bukaeran, aldian-aldian eskuratzen ziren adierazleak euskararen egoera eta bilakaera zehazteko metodologiara ekarri dira.</p>	<p>II. PEraiko egina dagoen diagnosia baliatzea</p> <ul style="list-style-type: none"> I. PEk utzi duen egoera eta diagnosia II.ak abiapuntutako hartzea. Diagnosi berri bat egin ordez, diagnosiaren eguneratze eta kontrastatze prozesu bat proposatzen da.
<p>Prozesu parte-hartzailea izan da hasieratik I. PE: abiaburuan prozesu parte-hartzailea burutu zen, parte-hartzaileen aniztasuna bermatuz, eta garapenean ere gizartearen parte-hartzea bilatu da.</p>	<p>II. PEraiko prozesu parte-hartzailea eta askotarikoa bermatzea</p> <ul style="list-style-type: none"> II. PEk gizartearen edozein sektoretako eragileekiko lankidetzaren lehenestea. Parte-hartzearen aniztasuna sendotzeko neurriak aurreikustea, parte-hartzaile askotarikoak, euskalgintzatik kanpo dauden sektoreak batik bat, II. PEn garatzean inplikatzeko.

EUSKARAREN I. PLAN ESTRATEGIKOA	
ESKARMENTUA	GOMENDIOAK
<p>Euskararen I. PEren barne kudeaketaren sistematizazioa lortu da. Scrumtegy tresna teknologikoa baliagarria izan da kudeaketa beharretara moldatua izan den heinean.</p>	<p>II. PEren barne kudeaketa hobetzea</p> <ul style="list-style-type: none"> Barne kudeaketaren sistematizazioa ezinbestekoa da eta osoki inplementatzean arreta jartzea proposatzen da. Barne kudeaketak lantaldeen gaitasunetan eta abilezietan duen eragina arrunt positiboa baita, prestakuntza eta laguntza planak sendotzea komeni da. Scrumtegy tresnaren balorazioa egin eta erabakiak hartzea, bai eta saretik doan har daitezkeen tresnak ikertzea eta baloratzea gomendatzen da.
<p>Euskararen I. PE kudeatzeko Euskarabidearen egitura. Plantilla organikoan zeuden hutsuneak bete dira eta Administrazio Publikoetan euskara garatzeko Zerbitzua sortu da.</p>	<p>II. PE kudeatzeko Euskarabidearen egitura egokitzea</p> <ul style="list-style-type: none"> Giza baliabide aski eta, batez ere, behar diren profiletan izatea beharrezkoa da. I. PEn Euskarabidearen egituraren gaineko diagnostika eta proposamena egin ziren, eta II. PErako aintzat hartzea proposatzen da. Euskarabidea erakunde autonomoaren organigramaren eta II. PEren garapenerako beharrezkoa den barne kudeaketaren arteko elkarbizitza bermatzeko neurriak hartzea.
<p>Euskararen I. PE garatzeko baliabide ekonomikoaren igotzea gertatu da, urtez urte PEren ardatzetako jarduerak bultzatzeko aurrekontua handituz.</p>	<p>II. PE garatzeko baliabide ekonomikoak ziurtatzea</p> <ul style="list-style-type: none"> II. PEk ekarriko dituen errorei egoki erantzuteko, aurrekontuak arian-arian igotzea proposatzen da. 4. eta 5. ardatzen bilakaerak hurrengo urteetan izanen duen garrantzia estrategikoa sumaturik, horietan diru-hornidura, bai inbertsioen aldetik, bai giza baliabideen aldetik, handitzeko aurreikustea komeni da.
<p>Euskararen I. PEren komunikazioa, barnekoa nahiz kanpoko, lantzeko sistema bat ezarri eta martxan jarri da.</p>	<p>II. PEren komunikazioa, barnekoa eta kanpoko, zehaztea eta sendotzea</p> <ul style="list-style-type: none"> Kanpo komunikaziorako estrategia definitu eta martxan jarri, Herritarrekiko Harremanetako Departamentuak gidaturik, Komunikazio Zuzendaritza Nagusiarekin batera. Barne komunikaziorako prozedurak definitu eta martxan jartzea, erakundearen barne kohesioa sendotzeko, Euskarabidearen egoitza berriak horretarako emane dituen aukerak probesturik. Barne eta kanpo komunikazioaren kudeaketak eskatzen duen lana eta denbora egonkortzeko, neurriok proposatzen dira: giza baliabideak esleitzea, langileendako prestakuntza saioak, aurrekontua zehaztea eta behar diren arloak bermatzeko, kanpoko laguntza teknikoa.
<p>Euskararen I. PEren garapena ez da bide ordokia izan. Oztopo eta zailtasun ugari izan ditu.</p>	<p>II. PEren garapenean izan litezkeen zailtasunak aurreikustea</p> <ul style="list-style-type: none"> I. PE garatzeko bidean aurkituriko oztopoen balorazioa egin eta II. PEren garapenean suerta litezkeen zailtasunei aurre egiteko plana definitzea.
<p>Euskararen I. PEn hizkuntza politikaren zeharkakotasuna harroinetako bat da eta Foru Gobernuoko beste unitateekiko elkarlana eskatzen zuen.</p>	<p>II. PEren zeharkakotasuna balioan paratzea</p> <ul style="list-style-type: none"> II. PE Nafarroako Gobernuak onartuko baitu eta Gobernuaren hizkuntza politikarako plangintza estrategikoa izanen baita, Gobernuoko departamentu guztien inplikazioa biltzea komeni da.

EUSKARAREN I. PLAN ESTRATEGIKOA	
ESKARMENTUA	GOMENDIOAK
<p>Euskararen I. PEk Euskarabidearen prozedurak sistematizatzea eta hobetzea ekarri du. Itzulpen Atalean eta Prestakuntza Atalean antolaketa hobekuntza nabarmenak egin dira eta zerbitzuen egonkortasuna lortu.</p>	<p>II. PE Euskarabidearen prozedurak hobetzeko bidea izatea</p> <ul style="list-style-type: none"> II. PEk Euskarabidearen funtzionamenduaz, lana antolatzeko moduez eta proiektuak kudeatzeko eraz etengabe hausnartzeko bidea ematea eta plangintza estrategikoa erakundearen bikaintasunarekin uztartzea.
<p>Euskararen I. PEk adierazle kudeaketa zaila izan du zenbait arrazoi direla eta: datuen iturria, maiztasuna, fidagarritasuna, baliagarritasuna, neurtzeko gaitasuna, etab.</p>	<p>II. PErako adierazle kudeaketa lantzea</p> <ul style="list-style-type: none"> II. PEn orain arte metatu den eskarmentua probestu eta honetaz sakonki hausnartzea: baliagarriak eta neurgarriak diren adierazleak definitu, datu iturriak ziurtatu, maiztasunaren arabera moldatu, informazio iturriekin lankidetzan sistematizatu, etab. II. PErako biziki lagungarria izanen da planaren bilakaeraren etengabeko ebaluazioa eta jarraipena adierazle bidez egitea. Foru Administrazioan euskara jakitearen eta erabiltzearen gaineko informazioa sistematikoki biltzeko kulturarik ez baitago, Gobernuoko departamentuei datu soziolinguistikoak jasotzeko garrantziaz ohartaraztea eta estatistika eragiketetan galdera egokiak sartzeko Euskarabidea aholku-emailea izatea.
<p>Euskararen I. PEkiko Euskarabideko langileen konpromisoa eta ikastea ezinbestekoak izan dira. Estrategikoki lan egiteko molde berria ezarri da eta inoiz landu ez diren esparruak landu dira.</p>	<p>II. PErako Euskarabideko langileen ezagutza eta eskarmentua balioestea</p> <ul style="list-style-type: none"> II. PEn Euskarabideko langile taldeak metatu duen eskarmentua eta ezagutza baliatzea. II. PE egoki garatzeko barne komunikazioa zaintzea eta langileek dituzte prestakuntza beharrak identifikatu eta horiei egoki erantzutea. Erakundearen lanean hasi berri diren eta hasiko diren langileak PEren lan kulturaren txertatzeko eta horren parte sentiarazteko neurriak aurreikustea.
<p>Euskararen I. PEren emaitza ona izan da: gutxienezko batzuk lortu dira eta lorpen hobeak izateko bidean jarri gara. Nafarroan herritarren hizkuntza eskubideak hobeki betetzeko bidean urrats bat eman da. Bidea luzea da.</p>	<p>II. PEren onura: gizartea justuagoa izatea</p> <ul style="list-style-type: none"> II. PEk Nafarroako onurak ekarriko dituela gizarteari egoki komunikatzea komeni da: bi hizkuntzen arteko berdintasuna sendotzen, herritar guztien hizkuntza eskubideak betetzen eta euskara nafarren arteko elkarbizitza elementu baliotsutzat ikusia izan dadila hedatzen lagunduko du.



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



euskarabidea